



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko maiatzaren 10a

44. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzi du osoko zuzenketa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako segurtasun publikoari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, sozietate publikoaren definizioari eta kontzeptuari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Buztintxurin, Sarrigurenen eta Mutiloa-Badostainen kontsultak arratsaldeko txandetan zabaltzeko konpromisoa har dezan, herritarrei arreta egiteko. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sustapen Ministerioarekin negozioa dezan salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko ereduaren araberakoa izan dadila eraiki beharreko trenbidea. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko azterlanak egin ditzan trenaren erabilerarik hoberena ahalbidetzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da menpekotasuna duten pertsonentzako laguntzari buruzko liburu zuria taxutu dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Cardenal Ilundáin ikastetxean D ereduko lerro bat ireki dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aspace-Navarrarekin egin beharreko itunean gurasoek eta langileen ordezkariak ere parte har dezaten. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errehabilitazio psikosozialeko zentroetako langileen arloaren gaineko ikuskapen bat egin dezan eta adimeneko nahaste larria duten pertsonen laguntza emateko proiektua abian jartzean gertatu diren akatsak egiaztatu ditzan. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak bazter utzia (7. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Eztabako tuneletako obrei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DU OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko maiatzaren 4an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruz Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordera igorri da.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proiektua, Nafarroako segurtasun publikoari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko maiatzaren 4an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Eusko Alkartasuna eta Aralar parlamentu-taldeen Nafarroako segurtasun publikoari buruz Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordera igorri da.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, sozietate publikoaren definizioari eta kontzeptuari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2006ko maiatzaren 4an egindako Osoko Bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak aurkeztutako sozietate publikoaren definizioari eta kontzeptuari buruzko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2005eko martxoaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proposamena, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2006ko maiatzaren 4an egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztutako Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2005eko martxoaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Buztintxurin, Sarrigurenen eta Mutiloa-Badostainen kontsultak arratsaldeko txandetan zabaltzeko konpromisoa har dezan, herritarrei arreta egiteko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Buztintxurin, Sarrigurenen eta Mutiloa-Badostainen kontsultak arratsaldeko txandetan zabaltzeko konpromisoa har dezan, herritarrei arreta egiteko."

Legebiltzarrak 2006ko maiatzaren 4an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko martoxaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sustapen Ministerioarekin negoziatzea dezan salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko ereduaren araberakoa izan dadila eraiki beharreko trenbidea.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Sustapen Ministerioarekin negoziatzea dezan salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko ereduaren araberakoa izan dadila eraiki beharreko trenbidea."

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko martxoaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko azterlanak egin ditzan trenaren erabilerarik hoberena ahalbidetzeko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko azterlanak egin ditzan trenaren erabilerarik hoberena ahalbidetzeko."

Legebiltzarrak 2006ko maiatzaren 4an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da menpekotasuna duten pertsonentzako laguntzari buruzko liburu zuria taxutu dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da menpekotasuna duten pertsonentzako laguntzari buruzko liburu zuria taxutu dezan."

Legebiltzarrak 2006ko maiatzaren 4an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Cardenal Ilundáin ikastetxean D ereduko lerro bat ireki dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Cardenal Ilundáin ikastetxean D ereduko lerro bat ireki dezan."

Legebiltzarrak 2006ko maiatzaren 4an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aspace-Navarrarekin egin beharreko itunean gurasoek eta langileen ordezkariak ere parte har dezaten.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2006ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Aspace-Navarrarekin egin beharreko itunean gurasoek eta langileen ordezkariak ere parte har dezaten."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aspace-Navarrarekin egin beharreko itunean gurasoek eta langileen ordezkariak ere parte har dezaten

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Aspace-Navarra entitatearekin tramitatzen ari den itun berriari gurasoek eta langileen ordezkariak parte hartu dezaten, langileen ratioari dagokionez eta bizigarritasun eta zerbitzuak erabiltzeko baldintzei dagokienez ere kalitate maila nahikoa lortuko dela bermatze aldera.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errehabilitazio psikosozialeko zentroetako langileen arloaren gaineko ikuskapen bat egin dezan eta adimeneko nahaste larria duten pertsonen laguntza emateko proiektua abian jartzean gertatu diren akatsak egiaztatu ditzan.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da errehabilitazio psikosozialeko zentroetako langileen arloaren gaineko ikuskapen bat egin dezan eta adimeneko nahaste larria duten pertsonen laguntza emateko proiektua abian jartzean gertatu diren akatsak egiaztatu ditzan."

Legebiltzarreko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak 2006ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ezka bako tuneletako obrei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an eginitako bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Ezka bako tuneletako obrei buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Ezka bako tuneletako obrei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (8. or.).
- II. Helburua (10. or.).
- III. Ondorioak eta gomendioak (10. or.).
 - III.1. Inbertsioaren kostua (10. or.).
 - III.2. Aurrekontu-egozpena (11. or.).
 - III.3. Epeak (11. or.).
 - III.4. Legezketasuna (11. or.).

I. SARRERA

Kontratuaren xede Ezka bako tuneletako obrak, Iruñera iparraldetik sartzeko. Obrak egiteko arrazoia izan da Iruñeko iparraldeko eta ekialdeko ingurabideak lotu beharra, eta halaxe jaso ziren 1997ko abenduaren 2ko Nafarroako errepideen plan zuzendarian.

Obra udalez gaidikoa izaki, proiektua jendaurrean jarri zen, eta fase hori bukatutakoan, 2001eko azaroaren 27an onetsi zen, 24.324.992,90 eurotan.

Obrak ekainaren 17ko 685/2002 Foru Agindua- ren bidez adjudikatu zitzaizkion Construcciones Mariezcurrena, S.L.ri, 23.036.923,30 milioitan –beherapena ehuneko 5,26koa izan zen, eta bukatzeko epea 30 hilekoa–.

Obrak 2002ko abenduaren 2an hasi ziren, eta tunelak 2005eko urtarrilaren 28an inauguratu ziren, aurreikusitako 30ak baino lau hilabete lehenago.

Aldaketa bat eta bi obra osagarri tramitatu dira. Horra:

- Kontratatistak proposatutako hobekuntza, zeinaren bidez aldatu baitira tunelaren iparraldeko aldeko ahoa eraikitzeke prozesua eta Ultzama ibaiaren gaineko egituraren erabilitako taula. Ez dira aldatu ez epea ez prezioa, eta kontratatistak bere gain hartu du aldaketaren erantzukizun osoa.

- 1. obra osagarria. Ez zegoen hasierako proiektuan aurreikusita. Laugarren erreia handitzeko eta neurri zuzentzaileen kapituluaren –ereite hidraulikoa, ureztaketak, lur begetala eta abar– aldaketak egiteke obra da batez ere. 1.999.999,95 euro adjudikatu dira, eta epea urtebetekoa da.

- 2. obra osagarria. Tuneletako instalazioak egokitzea (suteak, seinaleak eta abar), araudia aldatu baita. 499.999,78 euro adjudikatu dira, eta obra egiteke epea lau hilekoa da.

Obra 2005eko ekainaren 2an hartu zen.

Departamentuak eman dizkigun datuen arabera, 715.605 euro ordaindu dira gaur arte desjabetzeak direla eta.

Ondoko taulan, obra hori egiteke sinatu diren kontratuen laburpen bat azaltzen da, alde batera utzita erositako lurak (desjabetzeak), ez baitira aztertu.

Kontzeptua	Adjudikatua	2006-02-28an likidatua	Likidatzeke	Guztira 2006-02-28an
Obra nagusia	23.036.923	25.316.950		25.316.951
Prezioak berrikustea			589.084	589.084
1. obra osagarria	1.999.999	1.865.907	(1)	1.865.907
2. obra osagarria	499.999	549.935		549.935
Obra guztira.	25.536.921	27.732.792	(1)	28.321.877
Proiektua	325.701	*337.831		337.801
Laguntza teknikoa	495.772	495.772		
Laguntza teknikoaren prezioak berrikustea			20.491	516.264

* Proiektu honi 1.803 euroko zehapena ezarri zitzaion, ematean atzeratzeagatik.

(1) Obra likidatzeke dago.

2006ko otsailaren 28an ordainduta eta ordaintzeke zeuden zenbatekoak ikus daitezke taulan. Likidatzeke dago 1. obra osagarria, zeina, aldaketarik izan ez duenez, adjudikatutakoa baino ehuneko 10 garestiago atera baitatiteke.

Obra nagusia egiteko epeei dagokienez, ondoko taulan azaltzen dira zeintzuk bete behar ziren araudiari jarraikiz eta zein izan diren benetan epeak:

	Araudiaren arabeko epea	Benetako epea
Adjudikazioa	2002ko ekainaren 17a	
Jakinarazpena	2002ko ekainaren 27a	
Kontratua (15 egun)	2002ko uztailaren 12a	2002ko abuztuaren 1a
Segurtasun planaren onespina	2002ko azaroaren 28	
Zuinketaren egiaztapena.	2002ko abuztuaren 12a	2002ko abenduaren 2a
Egiteko epea (30 hilabete)	2005eko otsailaren 12a	2005eko ekainaren 2a
Ibilgailuentzat irekitzea.	2005eko urtarrilaren 28a	
Onarpena	2005eko ekainaren 2a	
Azken likidazioa	2005eko urriaren 28a	

Ondoko taulan ikus daiteke zenbait eskaintza aurkeztu zen lizitazio horietara eta zein izan zen adjudikazio modua:

Kontzeptua	Adjudikazioaren data	Adjudikazio modua	Eskaintza kopurua
Obra nagusia	2002ko ekainaren 17a	Lehiaketa	17
1. obra osagarria	2005eko otsailaren 3a	Negoziatua, publizitaterik gabekoa	-
2. obra osagarria	2005eko martxoaren 8a	Negoziatua, publizitaterik gabekoa	-
Proiektua	1998ko abenduaren 16a	Lehiaketa	10
Laguntza teknikoa	2002ko irailaren 18a	Lehiaketa	9

Kontratu guztiei aplikatzen zaie Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea.

II. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Comptos Ganberak 2005eko bere lan-planean sartu du "Ezka bako tuneletako obren" fiskalizazioa.

Lan honekin, ondoko helburuak bete nahi izan ditugu:

- Egindako inbertsioa aztertu eta haren ikuspegi orokorra eman, hura osatzen duten kontzeptu guztiengatik egoztekoak diren gastuak zehaztu.
- Gastu kontzeptu ezberdinak behar bezala oinarritu eta dokumentatuta dauden egiaztatu.
- Azterketaren helburu diren jardueri aplikatzea zaien legezotasun printzipioa betetzen den aztertzea.

Metodologiari dagokionez, lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, Comptos Ganbera honek erabili ohi dituen auditoria prozedurak eta programak erabili ditugu, bere Auditoria Gidan jasota dituenak eta Espainiako estatuko Kanpo Kontrole-

rako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoriarako onetsiriko arau eta printzipioei jarraituz garatuta daudenak.

Azterketa-lana auditoriako teknikari bik eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrazioen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko langileei, eman diguten laguntzarengatik.

III. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, gure lanetik ateratako ondorio eta gomendioak aurkezten ditugu, aurreikusitako helburuekin bat:

III.1. INBERTSIOAREN KOSTUA

Horra Ezka bako tunelak eraikitzearen behin betiko kostua, 1. obra osagarria bukatzeke dagoela eta lurrak erostea alde batera utzita:

	Adjudikazio-hartzailea	Zenbatekoa
Proiektua	EYSER eta SERTECNA ABEE	337.831
Obra nagusia	Mariezcurrera	25.316.951
Prezioak berrikustea		589.084
1. obra osagarria	Mariezcurrera	1.865.907
2. obra osagarria	Mariezcurrera	549.935
Laguntza teknikoa	Proyex	495.773
Prezioak berrikustea	Proyex	20.491
Guztira		29.175.972

* Azken likidazioaren zenbatekoa falta da

Horra obrei ez beste ezeri buruzko datu nagusiak:

Kontzeptua	Obra nagusia		1. obra osagarria		2. obra osagarria	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Lizitazioaren zenbatekoa	24.314.991		2.111.040		527.760	
Adjudikazioaren zenbatekoa	23.036.923		2.000.000		500.000	
Baja, ehunekoa		5,26		5,26		5,26
Betetakoa	25.316.951		1.865.907*		549.935	
Bete den ehunekoa, adjudikatutakoa oinarri		109,9				109,9
Prezio aldaketak	589.084					
Obra guztira.	25.906.035					

* Obraren likidazioaren zenbatekoa falta da.

Laburbilduz, obra 23.036.923 eurotan adjudikatu zen, ehuneko 5,26ko beherapenarekin, eta adjudikatutakoa baino ehuneko 10 gehiago bete da, 23.036.923 euro alegia, prezioen berrikuspenarekin 25.316.951 euro egin arte.

Bi obra osagarri ere adjudikatu ziren, guztira 2.500.000 eurotan; horietarik, 2.415.842 euro likidatu dira, eta horietako baten likidazioa falta da.

Gaur arte, 27.732.793 euro likidatu dira guztira (prezioak berrikusi gabe); proiektua eta laguntza teknikoa aintzat hartuz gero, zenbatekoak 28.566.394 euro egiten du.

III.2. AURREKONTU-EGOZPENA

Kontabilitateko agiriak aztertuta ikusi ahal izan dugu eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela eta ondoko ekitaldiei egotzi zaizkiela:

Ekitaldia	Mariezcurrenaren obra	Proyexen laguntza	Eyserren proiektua	Guztira 2006-02-28an
1999			154.320	154.320
2000			183.511	183.511
2002	1.499.569			1.499.569
2003	9.319.008	314.345		9.633.353
2004	12.217.444			12.217.444
2005	3.630.863	181.427		3.812.290
2006	1.065.907			1.065.907
Honaino, guztira	27.732.791	495.772	337.831	28.566.394
Falta da*	589.084	20.491		

* 1. obra osagarriaren likidazioaren zenbatekoa falta da.

III.3. EPEAK

Obra nagusia bukatzeko epea baino lau hilabete lehenago eman zen erabilera publikorako, eta data hori bat dator obra hartzeko datarekin.

Halere, ez dira bete adjudikaziotik obrak hasi bitarteko administrazio epeak (ikus 1. atala).

Ikus daitekeenez, aurreikusitakoa baino azkarrago egin da obra, eta horrenbestez, kasuan kasuko ordainketak baino azkarrago ere bai; halatan, atzerapena izan da likidazioa ordaintzerakotan, eta txosten hau egiteko unean likidatu gabe zegoen obra osagarria. Orobat azpimarratu nahi dugu ezen laguntza teknikoaren 2004ko ordainketan 2005ean egin direla.

III.4. LEGEZKOTASUNA

Oro har, esan dezakegu aztertutako administrazio prozedurak aplikatzeko den araudiaren arabera izan direla.

Halere, hiru alderdi azpimarratu nahi ditugu, gure ustez arreta berezia behar baitute:

a) Eskaintza ekonomikoa batez besteko beherapenaren arabera balioestea. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, kontseilariaren agindu bati jarraikiz, irizpide hori darabil 1998tik aitzina; horren helburua da "obrak arrazoizko prezioan adjudikatzea, eskaintza baxuegiek eragindako tentsiorik gabe egin ahal izateko obrak, horrek

turrusta-efektu kaltegarria baitu langile, hornitzaile eta azpikontratengan, eta hori ekiditen saiatu behar da."

Hori dela eta, adierazi beharra dago ezen Comptos Ganberak zenbait txostenetan adierazi duela –beste horrenbeste egin dute zenbait erakunde-irizpenek, Murtziako Administrazio Kontrataziorako Batzordearen ekainaren 37ko 4/2003 irizpenak edo Europar Batasunaren 1997ko abenduaren 23koak kasu– eskaintzarik merkeenak ezin dutela jaso eskaintza garestiagoek baino puntuazio baxuagoa, eta, azken finean, "batez besteko beherapenaren" irizpidea aplikatzeak ez duela laguntzen adjudikazioak efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera egiten.

b) Proiektua gainbegiratzea.

Proiektua hartzeari buruzko aktak ondokoa adierazten da:

"Bi ordezkarietek aipatu proiektua aztertu ondotik, behin-behinekoz hartu da, ustez erabat bukatuta dagoelako, Nafarroako Gobernuak onetsitako proiektuarekin bat etorri egin delako eta klausula administratibo eta partikularretan ezarritakoa bete delako."

Gure ustez, onarpen aktak administrazio izaera du nagusiki, eta hortaz, proiektuaren berrikuspena agiri berariazko batean jasota utzi behar da. Kontuan izan beharra dago proiektuaren berrikuspenak, kasua baldin bada, hautematen ahal diren

akatsak zuzentzeko balio behar duela, eta aurrerago aldaketak edo obra osagarriak egitea ekiditeko.

c) Obra erabilera publikorako ematea hura hartu aitzin.

Hartu aitzin eman da erabilera publikorako.

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Adjudikazio lehiaketetako eskaintza ekonomikoan balioespena halako moduz egitea non eskaintzarik merkeenek garestiagoen aldean lehentasuna izanen duten.*

- *Idatziz jasota uztea proiektuaren berrikuspena, hura onetsi aurretik egin beharko baita.*

- *Onarpen akta sinatu ondotik ematea obra erabilera publikorako. Aurretiaz egin behar baldin bada, idatziz jasota uztea zergatik egin behar den horrela.*

Egindako lanaren ondorioz eta jarduera publikoa hobetze aldera, hobetzeko moduko ondoko alderdiak nabarmendu nahi ditugu:

- *Zorroztasun handiagoarekin betetzea segurtasun plana aurkezteari, kontratua sinatzeari eta zuinketa egiaztatzeari buruzko epeak.*

- *Kontu-hartzaitzak kontratazio mahaietan parte hartzea.*

- *Berariaz onestea klausula administratiboen pleguak, eta berariaz izendatzea obraren zuzendaritzaz arduratuko den pertsona.*

- *Dokumentazio jakin bat aztertzea eta zenbait tekoetan nahiz espedientea taxutzean gerta daitezkeen akatsak, duda-mudazko interpretazioak eragin ditzaketenak, zuzentzea.*

- *Ordainketak obra egiaz egiteari egokitzea.*

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	43,95 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,15 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,30 »